

Behin eta berriz gure gogoak *Kultura* hitzaren barnera itzuli beharrean gara. Izan ere, hamaika esanahi erantsi ohi zaio minutu oro gure ahotan darabilgun hitz honi. Eta eguneroko solasetan ezezik, kultur zientzialariek edo antropologariek ere mila zentzu ematen diote beren jardunetako oinarri hitzari (1).

Kultur antropologiari eta soziologiari buruzko euskal gogaketa nahiko berria dela uste dut. Hala ere, *kultura* hitza batere eragozpenik gabe sartu da; euskal entzumenari egoki datorkio nunbait. Eta bestalde gaurko gizarteko eta herriarteko harremanetan derrigorrezko hitza bilakatu da. Baina hortik aurrera, euskeraz kultur antropologia bat egitean edo soilki euskeraz kulturaz mintzatzean, geure pentsabide bat eta geure mintzabide bat landu beharko dugu. Eta aurren-aurrenik *kultura* hitzaren beraren zentzua argitzen saiatu behar, euskeraz ere horren nahastua bait dabil.

Bide honetatik jo nahi dut idazki hau ematean: ez hirurehun-

---

(1) Kultur Antropologia edo Etnologia zientzia bezala zaharra izan ez arren ere, "kultura" hitzaren berrehun eta berrogeitamar mugaketa ezberdinak zenbatu ditu batenbatek. Ikus: *Dictionnaire de la Foi catholique. Les mots*, Ed. du Cerf, Paris, 1968, "Culture" artikuluan.

garren mugaketarik ateratzeko noski, kultura hitzaren inguruan argi apurtxo bat sortzeko baizik. Eta JAKIN-ek bidetu nahi izan duen liburu honek, "Kultura ta Fedea" gaitzat duelarik, Kulturaren inguruko nere azterketa hau ere Fedeari begira izanen da: hots, kulturak eta fedeak beren artean izan ditzaketen zerikusi ta loturak azalean jartzeko bideak irikiaz, edo kulturak fedeari zabaltzen dizkion leioak bereziki erakutsiaz (2).

## Kultura, gizabidea

B. Hinwood-ek, gaurko kultur antropologiari jarraiki, hiru zentzu nagusi bildu ditu kultura hitzari dagokionez: pertsonaren kultura, gizartearen kultura eta materiaren kultura (3). Sailketa hau gure erara jarrai genezake, eskema orokar bezala; hala ere, ez dugu inolaz ere ahanzi behar hiru esanahi horiek gizonagan batzen direla eta beragan mamitzen.

Bilakaera edo eboluzioa egun zientzi legea da (4), biziari eta bizidunei dagokienez: benetan bilakaera biziaren histori bidetzat zientzilari gehienek onartu dute. Eta gizonak ere, bizidun denez geroz, ezin lege honetatik ihes egin. Beraz gorputzarekiko antropologariak bilakaera lege horren hitzaletan eta neurritan azterkatzen dute giza-historia (5).

---

(2) Kulturaren eta fedearen arteko arazoa ez da, noski, gaurkoa. Itun Zaharrean maiz agertzen da problema hau; eta ezin ahanzi Kristo berbera agertu zaigula fede ta kulturaren arteko arazoaren sinbolu eta adierazpen bezala. Bere ondoren, ordea, Elizaren historia Harengan azalduko arazo horren luzapena ez ahal da izan? Ikus: NIEBUHR, H. R., *Christ and Culture*, Harper, New York, 1956. Baina arazoaren planteamendua ez da beti berdina izan, ez hitzez eta ez mamiz ere; halaberrez, kultur ideia berak historia zehar horren joera ezberdinak izan dituelarik. Beraz, "kultura ta fedea" arazoa gaurkoa ez izanik ere, gaur bere berezitasunean agertzen zaigu, eta, hain zuzen ere, kultura hitzari Etnologiak eta Soziologiak beste zentzu zabalago ta sakonago bat eman diotelako. Zentzu hau azaltzen saiatuko gara.

(3) HINWOOD, B., *Race, The Reflections of a Theologian*, Herder, Roma, 1964, 126 horr.: "personal culture", "social culture" eta "material culture".

(4) Ikus: TEILHARD DE CHARDIN, *Le Phénomène humain*, Ed. du Seuil, Paris, 1954, 242 horr.

(5) Bide hau zabal eta bikain azaltzen duen liburu bat: HULSE, F. S., *La especie humana*, E. Aguilar, Madrid, 1968.

Gizona, bada, natura legeen bideetan zuzendua ari da, eta beraz izakien histori barnean murgildua eta bidetua. Baina giza-diaren historia ez genezake bilakaera legeetan muga, hesi horiek apurtu egin bait dira gizakia sortzean; eta, hain zuzen ere, bilakaera bidea *kulturaren* bide zabalagoan barna sartu da. Beraz, ez elkar ukatuaz, elkar barneratuaz baizik. Izan ere, gizakiaren aurretiko primateek beren bilakaeran bide berezia jarraitu behar izan zuten kultura izakiarentzat gorputz egokia prestatzeko; eta bestalde, hemendik aurrera giza-gorputzaren bilakaera kulturak zuzenduko du (6). *Bilakaera* izaki bizidun guztien "aurrerabide" historikoa baldin bada, *kultura* gizakien historia zeharo "aurrerabide" bihurtu da: *gizabidea*, hain zuzen.

Non, noiz eta nola hasi zen gizadiaren kultur bidea ez dago gertaera edo egite historikoen bidez zehatz argitzerik, irudimen bero batez ezik. Fenomenu luze eta ohargaitza izanik, ezin egun batetik besterako aldakuntza agiririk ikusi. Fenomenu guztien lehen hasierak ohargaitz izaten baldin badira, areago gizabidearen edo kulturaren hasierak, horren isilak eta geldiak izan zirelarik (7). Baina historiak erantzun garbirik eman ahal ezin badigu, orduan filosofiari galdetu behar (8).

Aipaturiko gorputz egokitasunarekin batera eta gorputz bilakaera berezi horrek eskatuta, baldintza batzuk sortzen dira primate zenbaitetan, kultura bidea zabaldu eta urratuko duten baldintzak, alegia: adimena sortzen da, hain zuzen; eta adimenarekin batera gizakia. Bizidun "berri" honentzat alboan eta aurrean di-

---

(6) HULSE, aip. lib., 434 horr.: "La evolución de la capacidad para la cultura tuvo que iniciarse como paso previo".  
435 horr.: "...La cultura evolucionó a causa de las capacidades biológicas preexistentes de ciertos primates, y de la evolución biológica de sus descendientes estuvo guiada desde entonces, por la cultura". Ikus gainera eta batez ere: 355-371 horr.

(7) FARIS, E., *The Nature of human Nature*, 22-23 horr.: "The primordial origin of human culture is a problem to the solution of which it is impossible to bring the facts".

(8) Horixe berbera egiten du Teilhard de Chardin-ek, bere zientzi datuak oinarritzat dituelarik. Ikus, batez ere, bere libururik nagusienetarikoa: *Le Phénomène*, aip. lib.

tuen izakiak ez dira senaren zuzpergarri bakarrik, beragandik bereizturiko eta aparteko errealidade baizik. Hau da, gizakiari “aurka” —ez derrigorrez etsai— jartzen zaizkio, beren zertasun eta izatasun bereziz.

Gizakiagan, bere barneko bilakaerak eraginda eta kanpoko errealidadean baldinpetu beharrak bultzatuta, dohain eta joera berriak zuzpertzten dira: *irikimena*. Bere inguruko izakiak errealidadetzat hartzen dituelarik, ez da bere baitan isten, baizik eta gauzetara bere burua zabaltzen du, horien barnea azterkatu nahian; era berean, izakien arteko isilaldi aspergarri eta luzea etetzen da, horien inguruan mintzaira sortuaz eta nolabaiteko elkarrizketa eratuaz (9). *Ekipena*, edo iniziatiba. Gizakia beste izakien aurren berariz jartzen da, ekintzaren bidez bereganatzeko: hots, izakiak bere eginkizuntzat hartzen ditu.

Bide honetatik *kultura* konzeptura lehen hurbilketa egin dugu: kultura, gizakiari lotuta ezezik, honen eta beste izakien arteko harreman berezia bezala azaltzen zaigu: argiago agian, gizonaren beste izakiekiko jarrera eta joera litzake kultura. Bizidunen arteko harremana senaren bidez eratzen baldin bada, gizakiaren eta beste izakien artekoa, kultur harremana bezala izandatu genezake (10). Harreman berezi honetan datza, baita ere, giza kulturaren oinarria eta berori ulertzeko lehen argia: gizabidearen hastapenak, hain zuzen ere.

Gizakia “gizagai” izan da garai batetan; bere gorputz bila-kaeraren eta bere adimenaren bidez kultur jokabidea hartu baldin badu, bere inguruari erantzutearren izan da —alde batetik inguruak eragin dio gorputz bilakaera eta giza-*psichearen* sorrera—.

---

(9) Ez naiz ari hizkuntzaren sorreraz, ez eta aho-hizkerarenaz ere; hori gizartearen fruitua bait da.

(10) S. Freud-ek kultura, giza-zirkinaren (*impulso*) aurka jartzen du. Gizakiak kulturaz bere zirkin gainperatu egiten ditu hiru erataraz: zirkin *trukatuaz* (por *consumpción*), beren ordez aihurri edo karakterra sortzen delarik; zirkin *goretiaz* (por *sublimación*); zirkin *baztertuaz* eta beraz *ez baliatuaz* (por *supresión o renuncia de su satisfacción*) Ikus: FREUD, S., *El malestar de la cultura*, (Obras completas, III), Ed. Biblioteca Nueva, Madrid, 1968, III puntua.

Hiru hauek: inguruak, gorputz bilakaerak eta giza-psycheak, hirurak batera eta hirurak elkartuta, jarri dute gizona kultur bidean. Beraz, kultura gizonak bere inguruko izakiei ematen dien erantzun berezia litzake.

Gizonak, bada, bere inguruko izakiekin topo egin du; baina oraindik ez du bere buruarekin topo egin. Dirudenez, gizonaren baitaratzea (erreflesioa) eta kontzientzia bilakaera luze baten ondoren eta kulturagintza saiaturen bidez besterik ez dira sortu (11).

Gizonak bere buruaren aurkitze hau aurrerapen handia izan da gizabidean. Izan ere, hemendik aurrera beste izaki guztiak bere inguruan bilduaz joango da eta bere menpean ikusiko ditu, bere buruari gauza guztien nagusigoa emanaz (12). Izakiekiko bere irikimena eta ekipena erantzukizun bihurtuko zaizkio. Barneko (*reflexivo*) eta kontzientziadun bilakatu den gizonak, batez ere bere burura itzultzen du bere ekipenik nagusiena. Orduan, izakiekiko kultura bene-benetan giza-kultura bilakatzen da: izakiak kulturatzean bere burua kulturatzen ari da gizona; beragandik zuzpeltu da kultur joera eta kultur ekipena, beragana itzultzen dira.

Eta orain kulturaren mamira heldu garela uste dut: hau da, kultura gizonaren hezipen eta hezibide... Kultura gizagintza bezala!

Baina honetan ez da giza-historia bukatu, oinarriak jarri baizik. Horien gainean giza-historia ez da bilakaeraren lege hutsez eraikiko, kulturaz baizik. Eta giza-historia kulturaren historia delarik, mami-mamian *gizabidea*... (13).

---

(11) Gizadiak gizakiaren bizi-aroen antzekoak ditu bere historia zehar: haurtzaroa, umetaroa, gaztaroa...

(12) Ikus: TEILHARD DE CHARDIN, *Le Phénomène*, aip. lib., 190 horr.

(13) TEILHARD DE CHARDIN, *ibid.*, 199 horr.: "L'hominisation, qui est d'abord, si l'on veut, la saut individuelle, instantanée, de l'instinct à la pensée. Mais l'hominisation qui est aussi, en un sens plus large, la spiritualisation physique, progressive de la Civilisation humaine, de toutes les forces contenues dans l'Animalité".

Orain arte gizonaz eta gizakiaz mintzatu naiz; baina gizona gizadi osoaren adierazgarri bezala —*gizadi* konzeptua kultura aurreratu baten sorkari izanen da—. Beraz gizadiaren kultur bi-deaz mintzatu gara. *Kultura* ideia horren barnean sartu beharko ditugu hasieran aipaturiko hiru zentzu nagusiak. Ederki asko bildu ditu hiru zentzuak, etnologi edo kultur antropologiaren sortzaile izan den E. Tylor-ek, kulturaren honako mugaketa hau ematean:

Kultura edo Zibilizazioa zera hau da: Gizonak gizartekide bezala bereganatzen duen jakintzaren, sinestearen, artearen, moralaren, legeen, ohituren eta beste holako ahalbide eta jokabideen osotasuna (14).

### **Kultura eta mundugintza**

Gizonak, gizon denetik, bere aurrean eta inguruan mundua aurkitu du, latz eta eder, ageri eta izkutu, miragarri eta bildur-garri, lagun eta etsai... Mundu honi bere erantzuna ematean, giza-kultura egiten saiatu da. Eta filologiaren aldetik ez ahal da izan honako hau kulturaren lehen esangura? (15). Baina batez ere, historiaren aldetik giza-kulturak alde honetatik eman ditu lehen urratsak.

Munduaren bilakaeraren legetetik nolabait ihes egin duenean, mundu horrek gizonarentzat bere absolutua galdu du. Eta gizona bera bihurtu da munduarentzat absolutu, honen izkutuak argitaratuaz, honen indarrak menperatuaz eta honen handia neurtuaz. Beraz, mundua gizonaren aurrean erlatibizatu egin da.

Mundugintza aipatzean gizonaren ekintza berezia esan nahi du, ez munduaren berezko bilakaera hutsa. Gizonak eginkizuntzat

---

(14) TYLOR, E., *Primitive Culture*, London, 1887, I, 1 horr.

(15) Kultura hitza latinetik dator; eta bere lehen esangura lurra lantzea izan zen: Erderaz orain "cultivar la tierra" esan ohi dena, alegia.

hartu bait du bere inguruko mundua, bere premietara egokitzeko lehen-lehenik eta gero bere gogo-nahikundeak betetzeko.

Barren-barrean kultura lan bezala aurkezten zaio gizonari. Lana gauzak *lantzeko*, hain zuzen ere (16). Izakiak lantzea da gizonaren munduarekiko eginkizuna. Bere ekonomi premiak eraginda, harriak lantzen hasi zen. Baina emeki-emeki lanketa horren zentzu eta bidea askoz zabalagoak hartzen ditu. Lanketa gizonaren nagusigoa agertzea litzake, alde batetik, eta bestetik nagusigoa horixe gorpuztea, osotzea eta burutzea. Baina menperatuaz izakiak gizonaren neurritara egokitzen dira, eta azken-azkenik gizonaren lagun eta luzagarri bihurtzen dira (17).

*Teknika* ugariz kulturatu eta lantzen du gizonak bere inguruko mundua: honen legeak aztertuz, zentzua irakurriaz, bere ederra jaso eta zabalduaz, bere indarrak mugatu eta menperatuaz... Jakintza, filosofia, sinesmena, artea, erlijioa, lanbidea... guztiak gizonak bere inguruko izadia bereganatzeko, menperatzeko, lantzeko eta leuntzeko asmatu dituen bideak besterik ez dira: hots, mundua kulturatzeko teknikak (18).

(16) J. M. Torrealdy-k dioen "kulturaren eta lanaren haustura" delako hori ez dut ulertzen (Ikus: *Kulturagintza eta Rikardo*, *Rikardo Arregi* liburukian (Jakin sorta 3) 1971, 20 horr.). Ez dut uste, euskeraz behintzat, kultura, lanaren bidez ezik, adieraz daitekeenik. Kultura ez da aukera bat gizonarentzat, "egin edo eduki «daitekeen» zerbait", nahi ta nahiezkoa baizik, gizonak gizon izan nahi baldin badu —eta honetan Torrealdy ta biok bat gatoz—; beraz lana-beharraren bidez kultura-beharrera jotzen dugu. Torrealdy-ren hitz horiek, bere asmoen kontra, nahasketarik sortu dezaketela uste dut.

(17) Landu eta leundu euskeran sustrai berbera dutela dirudi. Benetan harriak lantzea harriak leuntzea izan zen, eta kultura munduaren lantzea eta leuntzea dela esan genezake; bere laztasun osoan gizonaren aurka azaltzen zaion mundu hori. S. Freud-ek munduarekiko giza-kultura bi etsaien borroka bezala ikusten du: "La función capital de la cultura, su verdadera razón de ser, es defendernos contra la Naturaleza" (*El porvenir de una ilusión*) (Obras completas, I), Ed. Biblioteca Nueva, Madrid, 1967, 78 horr. Beraz, kultura gizonak naturaren aurka eraturiko borroka litzake; eta bestalde, kulturak gizona naturaren erasoaldietatik babestuko luke. Hala ere, ez dut uste natura-mundua beti gizonaren etsai azaltzen denik.

(18) Argi denez, hori hola delarik, ez dago kultura ta zibilizazio konzeptuen arteko eztabaida jartzerik. Eztabaida horrek inoiz irtenbiderik izan baldin badu ere, gaur garaitua dela uste dut. Hitzei buruzko eztabaida ezik, funtsean ere gaur giza-kulturagintza bat-batean ikusten da, teknika aldetikako eta izpiritu aldetikakoen artean bi sail bereiztuak eta sailkatuak egin gabe; giza-joera ez bait dago hola sailkatzerik. Beraz ez genuke Camus-en pesimismoa onartuko, mundua ikustea eta mirestea alde batetik, eta ekintza beste aldetik jarriaz, zera hau esaten duenean: "Natura, ikuskizun eta mireskizun izatea galtzen duenean, lankizun eta materia aldagarri besterik ezin daiteke izan".

Bide edo teknika hauek gizonaren eta munduaren artean lotura berezia sortzen dute, beren harremanak gorpuztuaz. Beraz gizonak munduan duen luzapen eta bere barnearen agerpen dira. Mundua berez gizonaren “aurka” dagoelarik, mundu hori kulturatzeko teknikak ez dira gizonagandik kanpoko zera batzuk, eta gainera mundua gizonarekin hertsiki lotzen dute. Kulturaren bidez gizona munduan barneratzen da, mundu hori bere gisara moldatzen duelarik: kulturaren bidez gizakiaren eta munduaren artean sinpatia eta kidetasuna sortzen eta sakontzen dela esan genezake; gizonak bere bizi asmotan eta bere historiaren etorkidetan sartzen bait du mundua.

Areago, kulturakizun den mundua, kulturatua den neurritan, gizonaren sorkizun bihurtzen da. Beraz kulturak, gizonaren munduarekiko harreman, eginkizun eta teknika ezezik, beste esanahirik ere jasotzen du: hots, kultura-gai gorpuztuarena edo kulturagintzaren emaitzarena. Gai osotasunak gorpuzten du kultura: Zientzia mota guztitakoak, ideologia eta filosofiak, hainbeste eratako arteak, erlijio eta bere inguruko zenbait agerpenak, lan tresnak, edergailuak, sineskizunak, etab. giza-kulturaren gai dira; eta gizonaren agerpen eta emaitza direnez geroz, bere luzapen bezala.

Zer da orduan mundugintza? Beste bizidunentzat mundua egina, mugatua eta hertsia azaltzen da; giza-aberearentzat, ordea, eginkizun, bide eta etorkizun. Horregatik kultura-teknikaren bidez mundua “egiten” saiatzen da: bere neurritara egiten eta ego-kitzen, hain zuzen ere. Ekintza horren hegaletan, beragandik at zegoen mundu hori bere barneko agerpen eta bere inguruko luzapen bihurtzen du. Hau da mundugintza edo mundua kulturatzea; areago, mundua gizatiartzea.

Beraz mundugintza gizagintza bilakatu da. Izan ere, alde batetik mundugintza horrek giza-premia guztiei erantzun nahi die; sakon-sakonean giza-barnean eragiten du mundugintza. Eta barne horren gose-nahikundeak bete, ase nahi ditu. Horregatik kultura

gizonaren osagarri da. Bestaldetik, mundugintza gizonaren askabide da. Kultur joera, hasieran eta oinarrian, izadiaren bilakaera hutsetik askatzea baldin bazen, kulturagintza eta mundugintza beren jarraibide osoan horixe berbera dira: munduaren lege zorrotzak bidetuaz, bere indarrak menperatuaz, bere ezkutuak agertuaz, bere latza leunduaz eta bere ederra ikusi eta bereganatuaz, gizonak berak munduak ezarri dion morrontza astindu egiten du eta bere nagusigoa eta askatasuna burutu. Gainera kulturagintzaren gai eta emaitzak, kultur agerpen guziak behin eta betiko gizonarekin lotuta geratzen dira, agerpen direlako, hain zuzen ere. Eta kulturagintzaren emaitza gorpuzturiko horien bidez mundua bera gizatiarragotuaz doa, gizonaren inguru eta bizi giro egoikiago bat, hots, gizatiarrago bat zabalduaz.

Zati hau bukatu baino lehen, erlijioak kultura-teknika eta kultura-gai horien tartean ze toki eta eginkizun betetzen duen ikutu nahi dut, idazki honen asmoetarako interesgarri eta bidezko dela uste dut-eta —ez da ahanzi behar ia beti erlijioa eta kultura elkarrekin bateratzen zaizkigula—.

Kultura eta erlijioa historia zehar hertsiki lotuta agertzen dira (19). Baina honek ez gaitu bide okerretik abiaerazi behar, hau da, kultura ta erlijioa, bi zera direla-ta, bien artean erabateko bereiztasuna egitera; edo, alderantziz, biak lotuta azaltzen direlata, zera bakarra egitera.

Erlijioa gizonak mundua kulturatzeko teknika eta kulturaren gaien tartean sartu dugu. Hala ere, honetan ez da agortzen erlijioaren zerikusia eta eginkizuna kultura osoaren barruan. Kultur antropologia aldetik erlijioa gizonaren sorkizun bezala ikusten da. Sorkizunak ez du esan nahi, horregatik, asmazioa, besterik

---

(19) BARS, H., J. Maritain-en "Religion et culture" liburuaren hitzaurrean honela dio: "La rencontre, embrassement ou conflict, du "culturel" et du "religieux" est un fait de tous les temps et de tous les climats" (MARITAIN, J. *Religion et culture*, (Foi vivante 89) Desclée de Brouwer, 1968, 9 horr.). Beraz, ezin onartu, ez kulturaren izenean erlijioa ukatu nahi dutenak, ezta erlijioaren izenean kulturaren balioa ukatzen dutenak.

gabe; barne-barnean erlijioa gizonaren aldetiko ikerpen eta arki-  
pen bezala azaltzen zaigu, bere bizitzako zenbait gertakizunei eta  
munduari erantzun osoa eman eta bere barruko zenbait kezka eta  
nahikunde bete nahian: gizonaren nahikunde eta galdekizun sa-  
koneiak, hain zuzen ere (munduaren eta gizonaren sorrera eta  
amaia, biziaren eta izadiko indarren zentzua, heriotza, gaitza,  
etab.). Sinesteak eta sineskeriak, magia eta erlijioakizunak, dog-  
mak eta dotrinak, guztiek erlijioa kulturaren gai egiten dute.

Freud-entzat erlijioaren eginkizuna (erlijioa kulturaren alde  
bat izanik) hau da: kulturaren akatsak eta zenbait zorigaitz  
erremediatzea eta gozatzea; hain zuzen horretarako asmatu eta  
sortutakoa (20). T. S. Eliot-entzat, alderantziz, kultura da erli-  
jioaren funtzioa (21).

Bi afirmazioi gehiegikeria derizkiet. Kultur arloan erlijioak  
garrantzi handi-txiki izan dezake; baina kanpotik ezik, kultur  
barnean azaltzen zaigu (22). Eta kultura osoa egituratu eta ma-  
mitzen ez baldin badu ere (bestela erlijio-kultura batetan ginake),  
ezin ukatu giza-kulturaren historia zehar erlijioak izan duen he-  
dadura, kulturaren gai hain garrantzizko den moralaren oinarri  
eta argibide bezala ere.

Non da hemen fedearentzat tokirik? Fedea oraindik urruti  
da kulturaren erlijiotasunetik edo erlijio gaitik. Fedea ez da kul-  
turakin ez eta kulturaren teknika ere; fedearen zertasun eta oina-  
rria Jainkoaren goiagerpen historiko batetan bait datza, eta batez  
ere pertsonaia historiko batengan, alegia.

---

(20) Ikus: FREUD, *El porvenir*, aip. lib., 3. atala.

(21) Ikus: ELIOT, T. S., *Notes towards the definition of Culture*, Faber,  
London, 1967, 27-28 horr. J. M. Donoso Cortés-entzat ere zibilizazioa teologiaren  
distiria litzake beti.

(22) P. TILLICH-en kulturarekiko teologiaren oinarria hontantxe datza:  
hots, kultura bakoitzaren barneko erlijiotasunean; eta bera kristau denez, kul-  
tura guztien barneko Kristoren presentzian. Ikus: *Théologie de la culture*, Ed.  
Planète, Paris, 1968, J. P. Gabus-en sarrera, 32 horr.

## Kultura eta herrigintza

Orain arte gogaketaren bidean zera honetaraino heldu gara: hots, kultura gizonaren *agerpen* eta *emaitzen* osotasuna, mundua gizatiartzeko, hain zuzen ere. Baina giza-agerpen eta giza-emaitzen tartean beste tankerakorik ere ba dugu: oso gain-gaindik esanda, gizarte instituzioak... (23).

Kulturaren sorrera gizonaren sorrerari lotu badugu, giza-bakardadea gizartera ideki delako da. Inguruko munduarekin topo egitean, antzeko beste gizakiekin ere topo egin du eta kidetzat hartu behar izan. Ezinezkoa da abereen elkartetik gizarterako urratsa noiz eta nola eman zen jakitea. Baina lehen agerpena ez ote zen izan bi edo hiru gizaki, *lan* bat (kultur lana, noski) egiteko elkartu edo *gizartetu* zirenean? (24). Lehen gizartea, bada, lan-kidetzan edo kulturakidetzan agertu bide da.

Mundugintza gizartearen sorrera historikoan delarik, hala ere gizartea ez zaio mundugintza soilari mugatzen. Poliki-poliki gizartegintzaren arloa askozaz zabalagoa bilakatzen da, giza-bizi osoa, alegia. Eta beraz giza-kulturak neurribide edo dimensio berria arkitzen du: hots, gizartegintza. Mundugintza eta gizartegintza ez dira kulturagintzaren bi sail bereiztuak edo bereizgarriak, ez eta bi kultur bide ezberdinak edo paralelroak ere, giza-

---

(23) Hona hemen nola mintzatu den S. FREUD: "...«Kultura» hitzak gure bizia geure aurretiko abereengandik urrutiratu duten *produzio* eta *instituzioek* osatzen dute; beren xedea bikoia da: Naturatik gizona babestu eta gizonen harremanak eratu", (*El malestar*, aip. lib., 21 horr.). Gainontzean, Freud-ek berak, gizartearen sorrera bi sorkari honetan jartzen du: Eros eta Ananké direlakoetan, alegia. Eros, hau da, gizonaren emaztearenganako eta emakumearen bere semeenganako sexu- eta maitasun-erakarpena. Ananké, hau da, lanegiteko gizonen elkartu beharra (Ikus: *ibid.*, 29 horr.).

(24) FREUD psikologia aldetik mintzatu zaigun bezala, TEILHARD Antropologia aldetik ari zaigu: "Grâce à l'artifice merveilleux de la socialisation en milieu réfléchi, un type nouveau d'arrangement «psychogénique» (de nature éducative et collective —kulturala esango nuke nik—) est apparue dans la Nature avec l'homme..." (*Le groupe zoologique humain*, Albin Michel, Paris, 1956, 122 horr.). Elkartegintza (*asociación*) hainbeste bizidunen tasuna baldin bada ere, gizartegintza (*socialización*) gizakien bereiztasuntzat hartzen da.

kultura sail bakarraren bi koordenada elkar-barneratuak baizik: mundugintza gizartegintzan gorpuzten da eta gizartegintza mundugintzan (25).

Gizartegintzak, bada, gizonaren biologian eta psikologian bere oinarria arkitzen baldin badu ere, bere aurrerabide historikoan kultur antropologiaren gaia bilakatu da, giza-kulturagintza delako. Izan ere, familia, klana, tribua, enda... guztiak giza-elkarteak dira, eta giza-biologian oinarrituak eta giza-psikologiak eraginak. Baina giza-elkarteak direlarik, kulturak kutsatu dituela esan genezake; kulturak jazten eta mamitzen dituen neurritan elkarte horiek gizatiarrak direla esan behar: gizarteak direla, hain zuzen. Baita bizibideak ere sortu ditzake, odolaren loturetatik aparte, elkarteak, bai abereen artean bai gizakien artean; baina azken hauetan gizatiarrak direla esateko, benetan kulturak egituratuak beharko dute izan.

Geografiari lotuta arkitzen da gizona. Eta lurraldeak berak egiten ditu giza-taldeak, gizonen artean kidetza sortuaz eta sarritan beste taldeetatik bereiziaz. Azkenik, historiak (hau da, zenbait gertaera, borroka, etab. elkarrekin bizi izateak) elkartasuna sortzen du, eta gizonen artean gizarteak eratu, horien arteko kidetza sendotuaz eta beste taldeetatik banatuaz. Hala ere, oraindik geografi elkarteak edo historia edo destinu elkarteak izanen dira; eta kultur elkarteak (giza-elkarteak), kulturak ezurmamitzen dituen neurritan.

Zertan datza, orduan, elkarte guzti horiek gaintituaz —ez ukatuaz, barneratuaz eta bidetuaz baizik— gizartegintza burutzen duen kultur gizartea?

Lanerako lehen elkartze hura gizartearen oinarri ta hasiera

---

(25) C. KLUCKHOHN-ek dioenez, "une culture est... un ensemble de techniques qui doivent permettre de s'adapter à la fois au milieu extérieur et aux autres hommes" (*Initiation à l'Anthropologie*, Ed. Dessart, Bruxelles, 1966, 37 horr.). Ikus baita ere: FREUD, *El porvenir*, aip. lib., 73-74 horr.

izan baldin bazen, ez zen noski lankidetzaz sortu zelako bakarrik —bere aurretiko abereen artean ere ba da lankidetzarik—, lan eta errealdade horren inguruan, sen hutsak behartuak ezik, beste zerbaitek bildu eta elkar ulerrerazi zituelako batez ere: ulermen edo ulerbide berezia sortzen da eginkizun horren inguruan: hau da, *sinbolua*. Hemen da giza-elkartasunaren oinarri; eta gizartegintzarako idekiko diren bide guztietan sinbolua izanen da barnebarnean. Horregatik, S. Freud-ek eta Lévi-Strauss-ek, *gizonak elkartzeko sinbolu sistimen osotasun bezala* ikusten dute kultura.

—Gizonek beren artean ulertzeko sortzen duten *hizkuntzak eta edozein tankeratako mintzairak* oinarri-oinarrian du sinbolu sistema. Eta horretan bereizten da geienbat eta argienik gizona beste abereengandik.

—Edozein eginkizunetarako elkartzeko eratzen diren *gizarte instituzioak* sinbolu bidetan errotuak daude.

—Harremanak zuzentzeko gizonak jartzen dituen *legeak*, inoren joeraren sinbolu besterik ez dira.

—Azkenik, elkarte bizitzarako asmatzen dituen *balio sistimak eta moralak*, jokabide batasuna eta elkartasuna lortzeko, inguru edo giro sinboliko bezala azaltzen zaizkigu.

Beraz, gizartea lantzeko, leuntzeko eta kulturatzeko asmatu, sortu eta gorpuzten diren bide horien eta beste hainbeste, sinboluaren sustraitan errotuak daude.

Bide horietan ezurmamitzen da gizarte kultura. Ezurmamitu, bai, baina ez gizartegintza abstraktu batetan. Gizarte-kultura kultur gizarte konkretutan zertzen da; eta, agian, odol gizarte edo biologi gizartearen (klan eta enda) eta batez ere geografia gizartearen eta histori gizartearen baldintzapetan, eta beretan konkretaturik. Beraz, gizarte kultura, gizonak elkartzeko baldin bada

ere, konkretuz, geografia barna eta historia zehar, kultur gizartearen elkargarri eta bestengandik bereizgarri bilakatu da era berean: giza-mailan elkargarri eta giza-mailan bereizgarri (26).

Kultur gizarte konkretu eta berezi horiei *Herriak* deritzate. Horregatik gizartegintza kultur historiaren konkretasunean *herri-gintza* bilakatu da; eta giza-kultura, Herri kulturak: hau da, Herri bakoitzak mundugintzari eta gizartegintzari bere erantzun berezia ematen die, bere teknikak sortu eta landuaz eta bere sinbolu sistimak asmatu eta zertuaz, holan herribidea irikiaz.

Herria kulturak sortzen du, eta herriak bere kultura lantzen eta burutzen; horregatik kulturagintza herrigintza da. Kulturaren "aurka" jartzen denean bereganatzen du *Herria* hitzak bere esanahi jatorrena, giza-esanahi sakonena: gaur maiz *etnia* hitzari ematen zaiona, alegia (27). Herri baten zientzi bideak, filosofiak, era guztitako arteak, erlijioak, ekonomi bideak, gizarte instituzioak, balio sistimak, legediak, etab., eta batez ere hizkuntzak oinarritzen dute Herri kontzientzia eta sendotzen herrikideen kultur elkar-tasuna (28).

Herria ta bere kultura ez dira behin eta betiko burutuak; eta horregatik, une bakarrean mugatu beharrean, beren historia zehar ikusi behar dira. Kultura gizagintza delarik eta bere agerpen-emaitzak gizatiarrak eta gizonarekin lotuak, komunikagarri dira, komunikatu egiten dira Herri baten historia zehar, belaunaldi batengandik besteari, hizkuntza eta beste sinbolu sistimen bitartez,

---

(26) BENEDICT, R., *Patterns of culture*, Routledge, London, 1968, 11-12 horr.: "What really binds together is their culture, the ideas and the standards they have in common. If instead of selecting a symbol like common blood hereditary and making slogan of it, the nation turned its attention rather to the culture that unites its people, emphasizing its major merits and recognizing the different values which may develop in a different culture, it would substitute realistic thinking for a kind of symbolism which is dangerous because it is misleading". Ikus baita ere: FREUD, *El malestar*, aip. lib., 31 ta 46 horr.

(27) Erderazko "nación" hitzak ba du holako zentzuren bat. Baina hitz horri sarritan politika-elkartearen edo Estaduaren esanahia erasten zaio.

(28) Ez dut esan nahi gai edo elementu guzti horiek beste herrienetatik be-zeziak eta berezgarriak izan behar dutenik.

eta batez ere gizarte instituzioetan herrikide bakoitzak barneratu eta edaten duelarik (29).

Beraz Herri kulturak *tradizio* zentzua hartzen du, eta ohiturak beren alde garrantzizko bilakatzen dira: belaunaldi batengandik bestearengana komunikatzen den kulturaren sorkizun eta gai guztien tradizioa, eta urteak zehar Herrian zintzoki onartu eta betetzen diren ohiturak. . . Ez ezer egin gabe, noski, Herri bizi bezala eta kulturagintza jarraitzeko gogotan baizik. Hitz gutxitan, herriagintza burutzen saiatzeko.

Orain, beste ikusera honetatik, Bidney-kin era honetan muga genezake kultura:

Kultura konkretu batez ari garela (idazleak "culture", edo kultura abstraktuki ikusia, eta "a culture", edo kultura konkretuki ikusia, bereizten ditu), zera hau adierazi nahi dugu: jokabide eta pentsabide bereziak, teorikintza eta ekintza molde bereziak, gizarte xede eta erakunde bereziak, eta baita ere kultur eginkizun hauek sortzen dituzten emaitzak: zera hauetan gizarte bakoitzeko kideek osorik edo zatika eskuar dezakete (30).

Herria ez da, beraz, indibidu multzo soila, gogozko elkarte baizik. Horrentzat eta horren bidez bizi da indibidua (31). Eta kultura Herriaren "odola" eta "arnasa" bezala iruditua izan da: beraz, Herriaren bizia.

---

(29) BIDNEY, D., *Theoretical Anthropology*, Columbia University Press, New York, 1964, 125 horr.: "There is, moreover, general agreement among social scientists that culture is historically acquired by man as member of society and that it is communicated largely by language or symbolic forms and through participation in social institutions". KLUCKHOHN-ek, bere aldetik, zera hau dio: "Le phénomène culturel n'est possible qu'à la faveur de trois caractéristiques de l'animal humain: ses facultés d'apprentissage, son aptitude à communiquer au moyen d'un système des symboles appris, et sa capacité de transmettre les comportements acquis de génération en génération" (*Initiation*, aip. lib. 241 horr.).

(30) BIDNEY, *ibid.*, 127 horr.

(31) Ikus: DAWSON, CH., *Progrès et religion*, Plon, Paris, 1935, 26 horr.

## Kultura eta gizagintza (32)

Kultura herrigintza baldin bada, Herriaren eginkizun da, baina baita Herriaren bizia ere eta Herriaren tradizio, Herri bakoitzaren biziera delarik (33).

Gizaki bakoitza, jaio ordukoxe, kultura konkretu batetan murgiltzen da nahi ta nahi ez: nor bere Herriaren kulturen, alegia. Eta bere inguruko aidea arnasten duen bezala, bere Herriaren kulturak sortu duen giroan edaten hasten da. Berak ez dauka, bere Herria ukatuaz eta baztertuaz, beste kultura batetan bere gizatasuna osotzea erabakitzerik; bere gurasoek edo gizarteak beharko lukete holako erabakirik hartu. Dena den, gizakiak derri-gorrez kultura baten —eta ez berak aukeratua— egurats barnean sartua behar du izan.

Nor bere Herrian hasten da bakoitzaren gizagintza. Lehen gizona kulturabidean eta gizabidean abiatua zen, giza-kontzientzia eta baitaratzea iritxi aurretik ere. Eta hauetara heldu zenean ez zezakeen, noski, bere bilakaera uka, bere burua ukatu nahi ez baldin bazuen. Gizakume baten gizagintza eta kulturagintza ere hasia da gizartean sartu denez geroztik. Eta kontzientziara eta baitaratzera iristen denean bere kulturabidearen hasierak eta oinarriak baztertuko balitu, bere Herria edo gizartea ukatu ezezik, bere gizagintzaren oinarriak ere ukatuko lituzke, eta hutsune batetan ereriko. Horregatik ongi deritzat J. Apalategiren pentsakizun honi:

---

(32) Hau irakurriko duenarentzat oso irakurgarri deritzat R. ARREGI-ren honako idazki honi: *Euskaldunen gizagintza*, Rikardo Arregi liburuan. aip. lib. 171-205 horr. Bertan Rikardo zenaren zenbait konferentzia jasoak dira.

(33) Batek baino gehiagok botako dit, agian, Herri kultura mito besterik ez dela, gizarte-maila baten kulturak ez bait luke zerikusirik beste gizarte-mailaren kulturarekin. Ez dut ukatzen gizarte-mailen borroka kultur borroka ere ba dela; baina borroka horren gainetik edo azpian edo barnean —berdin zait— Herri kultura ba dela baieztatu nahi dut nik. Zein mallakoak diren Herri kulturaren agertzaille jatorrenak edo bakarrenak? Oraingo honetan ez dut horretan sartu nahi; zera bakarrik esango dut: Herri kultura Herri "langilearena" dela, lana bait da kultura... Tautologia bat, agian!

...gizona helburu honetara iristeko (kulturatzearen helburuak, alegia), norbera gizatiarki gizon sortu dan lurean, gizartean eta Herrian jabeki itsastez hasi behar du (34).

Zein esangura du, orduan, Herri kulturak herrikide bakoitzarentzat? Zein harreman eta joera behar du izan gizakiak bere kulturari buruz?

Funtsean Kultura eta Herria onartzea, nork bere burua onartzea da, eta diren bezala onartu, noski: beste moduzko kultura eta Herri bat amestea eta asmatzea ere nork bere burua ukatzea izango bait litzake. Errealidadea den bezala hartu behar, ez nahi genukeen bezala; berdin kulturaren historia ere. Hala ere, kultura ta Herria errealidade historikoak eta biziak direlarik, ezin fosilizatuak eta hilak bezala har. Nork bere gizagintza herrigintza baretan eta neurritan eratu behar: eginkizun bezala, hain zuzen ere.

Honako bi joera hauen bitartean iruditzen zait dagoela herrikidearena, bere Herri kulturari buruz: bat, kultura "zihurtasun-sistimatzat" hartzea da (35); bestea, ordea, S. Freud-ena litzake: kultura eta gizakiaren artean etsaigoa etengabea ari da; kulturak gizakiaren senak neurtzen eta zapaltzen bait ditu; eta gizakiak, kulturaren ondasun orokarra onartu arren, horrek ezartzen dion uztarria astindu nahi du (36). Batentzat zihurtasun-sistema baldin bada, bestearentzat zapalketa sistema da kultura (37).

Egia da, kultura gizakia inguratzen duen giroa delarik,

---

(34) J. APALATEGI, *Euskal kultura nora eta nola zuzendu behar dugun*, *Jakin*, 34.garrenean, 50 horr. Idazleak dioen bezala, norbere kulturari lotzeak ez du esan nahi norbere kulturean mugatzea eta istea; baina nor bere kultura beste kulturekiko idekipenaren ardatza liteke.

(35) Hau da Ortega y Gasset-en kulturari buruzko burutapena. Ikus: SANTAMARIA, K. *Euskal kulturari buruz*, *Jakin* 33.garrenean, 31-32 horr. Baita ere J. A. *Kultura eta dogmatismoa*, *Jakin* 34.garrenean, 56 horr.

(36) Ikus: FREUD, *El porvenir*, aip. lib., 74 horr. Baita ere: *El malestar*, aip. lib., 60-61 horr.

(37) Beste bide eta ikusera batetik, azken ideia honekin ados izango lirake, kultura, indartsuek menpekoak zapaltzeko asmaturiko ideologia eta harmatzat dadukatenak.

hutsunetik libratzen duela eta bere gizagintzako bidea argitzen dioela; baina horrexegatik lotura ere ba da. Baita ere egia da, Herri kulturak urraturiko gizabideak, asmatu-rik teknika eta ezarririko giza-erakundeak, gizaki-aberekiaren sen askatuak estutu, mugatu eta menperarazten dituztela; baina horiexek berberak ez ahal dute gizakia bere gizagintzan zuzentzen eta bere giza-nahikundeetan bidetzen?

Hala ere, Herri kulturak herrikidearen giza-nahikunde guztiak beteko baldin badizkio, hori ezin haren aurrean ezer egin gabe aurkeztu, kultura erabat egina eta burututakotzat harturik. Kulturak herrikidearentzat, datao izanik ere, asmoa (asmakizun) eta eginkizun behar du izan; gizona gizagintza den bezala, Herria herrigintza bait da, eta kultura kulturagintza etengabea. Herri kultura ez da aidean dagoen zera abstraktu eta absolutua,, herrikideek historia zehar egiten ari direna baizik.

Herri kultura ez da amets eta eredu abstraktua ere, herrikide bakoitzaren interesa baizik. Harek ez du zentzurik eta irtenbiderik gizagintza, herrikide bakoitza gizonago, egiteko ez baldin bada. Beraz, gure gogaketa luze xamar hau eginda gero, hasierara itzuli gara: hau da, kultura gizabidea eta gizagintza dela.

Herrigintza eta mundugintza, kulturagintza sailean elkar zeharkatzen eta gurutzatzen baldin badira, landa bateko koordena-da bezala, gizagintzara zuzenduak behar dute izan, gizona eta gizakia bait dira kulturaren iturburu eta helburu: gizona da kulturaren ikusmuga edo horizontea. Gizarte kultura batek herrigintza abstraktu eta mundugintza beste hainbeste abstraktu, helburu absolutu bezala hartzen baldin baditu, gizakia zapaldua geratzen da. Baina benetazko kulturagintzan ez dago horrelako aparteketarik egiterik, mundugintza, herrigintza eta gizagintza, gizabidearen hiru saiets besterik ez direlako. Eta edozein Herri kultura, zerbait osotu eta batua izaten da, bizitzarik eta indarrik duenean, ikuspegi guztiak egitura batetan barneratzen dituelarik.

Hemen ez naiz geratuko kulturarekiko estrukturalismo teoriaren xehetasunak aztertzen, baina bukatu baino lehen nahi nuke zertxobait aipatu, zer esan nahi duen kulturak egitura bezala eta batez ere balio sistema bezala.

Herriak kultura berezia asmatu, bidetu eta lantzean, alde batetik inguruaren baldintzapen osoari egokitu, eta bestetik gizonaren premia eta nahikunde guztiei erantzun betegarria eman nahi izan die. Horiek dira edozein kulturaren baldintzak eta eskeak. Baina kultura bakoitzaren barnean zerbait eraginkorrik ari dela dirudi, bere indar eta egite guztiak zuzendu eta aurrera eramaten dituen. . . L. J. Luzbetak-ek kultura, gizartearen "biziera-asmu" eta "egitamu" bezala ikusten du (38). Beraz, Herri kultura azterkatzean eta bere bideak, agerpenak eta gaiak biltzean, ez gaude sorkizun eta munduko nahastu baten aurrean. Pentsamolde, biziera, jokabide, ohitura, jakintza-, erlijio-, arte-agerpen eta kulturaren beste gai guztiek batasun osotua egiten dute, barneko asmo eta egitamu zehatzari jarraiki. "Barne-gogo" (39) horrek zuzentzen du kulturagintza eta honen emaitza eta agerpen guztiei beren egitura, zentzua eta tokia ematen. Baita ere horrexek ematen dio kulturari bere bereizitasun sakonena, bere barneko itxura, bere kemena eta bizitasuna.

Barne-gogo, eredu edo asmo horiei jarraiki, Herri bakoitzak bere kulturagintzan izaki guztiei zentzu eta balio bat itsasten dizkie, kultura barnean zentzu-sistema eta balio-sistema berezi bat

---

(38) Batean faszismoan eroriko litzake Herria edo Herriaren agintariak; eta bestean, teknizismo eta kontsumozko gizartearen. Hala ere, bai faszismoa eta bai teknizismoa eta kontsumismoa "kulturaren" izenean sortzen dira... H. MARCUSE-k ba du kontsumoko gizarte eta gizakiari buruz lan interesgarririk. Ikus, adibidez: *El individuo en la gran sociedad* saiakera. *Política y cultura* liburuan. Ariel, Barcelona, 1970, 43-86 horr. LUZBETAK L. I., *The church and Cultures*, Divine Word Publications, Techny, 1963, 60 horr.: "Culture is a design for living. It is a plan according to which society adapts itself to its physical, social and ideational environment".

(39) "Elan du fond", deitzen dio Teilhard-ek; beste batzuek, "arima", "burubidea", "gogoa", "filosofia", "indar-ideaia", etab. deituko diote, beren ikusera aidetik. Bide honetatik kulturaren azterketa egin duen antropologaririk aipatuena R. BENEDICT da, batez ere, bere *Patterns of culture* (hau da, "kulturaren eredu-jarraibideak") liburuaren bidez.

eratuaz (40). Eta sistema hauen arauera, neurtzen eta zuzentzen ditu bere biziera eta jokabideak.

Baina kultura aurren-aurretik bizia eta historia delako, ez daiteke izan behin eta betiko eraturiko sistema edo egitura hertsia. Egitura berbera moldatzen eta eratzen ari da etengabe, kultura gizartearen gainetiko zera absolutu bat ez delako, Herriaren eguneroko biziera eta gizonaren une oroko gizagintza baizik. Gizonak eta gizakiak, kulturaren egituraren eta balio-sistiman barneratuta, barnetik eragiten dute kulturaren aldaketa, kulturaren dendun zahartua hausiaz eta beste dendun berri bat bilatuaz, balio eta giza-nahikunde berri-indartsuen ohoretan. Hemen datza kulturaren krisia: bere egituraren aldagintzaren eta gizarte-gizakiak eragindako aldakortasunaren arteko borroka bezala, alegia. Esan ohi denez, krisia biziaren ezaugarri ona da —ez ahantz kultura bizia dela— (41). Herri kultura kritikatu, erlatibizatu eta historia-barneratu beharra dago etengabe, bere absolutuaren zamaz zapal ez gaitzan; baina bere “barne-gogoarekin” zintzo jokatuaz, bere asmo eta ereduaren jatortasunean, eta ideial, amets eta indar gizatiarragoen hegaletan: beti gizagintza helburuaren argitan, giza-oinarri eta helbururik gabe kulturak zentzurik ez bait du.

Gogaketa hau zehar, kulturaren esanahi ugari agertu dira, baina dena gizonagan, gizagintzan eta gizabidean bilduta. Fedeak gizaki kulturatu eta kulturadun honekin zerikusirik beharko du izan. Fedea *pertsonala* delarik —gizakiaren eta Jainkoaren harreman zuzena, alegia—, giza-kulturagintzaren barne-barnean sartzen da. Hala ere, kultura herrigintzan eta mundugintzan gorpuzten da. Beraz fedea fededunaren Herriari eta gizarteari baldindurik gertatzen ote da? Eta gizonak munduari ematen dion kultura erantzunak,

---

(40) Kultura balio-eraketatzat bereziki ikusten dutenek ere ba dira. Ikus: MARROU, H. I., *Théologie de l'histoire*, Ed. Seuil, Paris, 1968, 138-141 horr. Baita ere: MOHAN, R. P., *A. Thomistic Philosophy of civilization and culture*, The Catholic University Press, Washington, 1948.

(41) Delako fede krisia, bai pertsonaren bai gizartearena, eta batez ere gizarte aldaketen garaitan zuzpertzten dena, ez ote da maiz erlijio krisia besterik izanen, eta erlijio krisia kultura osoaren krisia?

batez ere erlijioaren bidezkoa, fedeari ateak idekitzen ote dizkio? Dena den, kultura, bere osotasunean, fedearentzat oztopo, idekipen edo zuzpergarri ahal da?

Kulturak gizabideari erantzun osoa eman behar baldin badio, eta benetan kultura gizakiaren osokuntza bezala ikusten baldin badugu, fedearentzat tokirik edo hutsunerik geratzen ahal da? Fedeak ez ahal du gizaki kulturadunentzat zeresanik?

Fedea ez da kultur emaitza edo agerpena; kulturak bere egi-tura gizatiarra duelarik, eta bere barnetik dendunaren bila ari delarik, fedea ez ote zaio etengabeko krisiaren zuzpertzaille gertatuko —kulturabidetik at sorturiko krisia, alegia—? Hemen ote dago, beraz, fedearen eta kulturaren harreman eta loturarik bi-ziena? Fedea, kultur balioa ez delarik, ba ahal du balio horiekin zerikusirik?

Planteamendu eta galdera hauek eta beste mila egin daitezke, agian, kulturaren “aurka” fedea jartzean...